ARGIA IKASTOLA: SORKUNTZA + AUTOKONTSUMOA

Edukia

ARGIA IKASTOLA: SORKUNTZA + AUTOKONTSUMOA 1

1. PROPOSAMENAREN LABURPENA 2
2. TESTUINGURUA. ZERGATIK SORKUNTZA + AUTOKONTSUMOA IKASTOLAN 3
3. ABANTAILAK: EREDU HONEK IKASTOLARI EKARRIKO DIZKION ONURAK 4
4. PLANTEATURIKO IRTENBIDE TEKNIKOA 5
5. FAQ (MAIZ EGITEN DIREN GALDERAK) 6
6. ONDORIOAK 7

1. PROPOSAMENAREN LABURPENA

Proposamenak gizartearen onura kolektiboa bilatu nahi du, hasierako aktoreak (IKASTOLAK eta GOIENER TALDEA) gainditukо dituena: tokiko enpresei lan-karga bideratuz, herri-entitateei tasak ordainduz, ingurumena zainduz (gertuko energia kontsumitzean kutsadura murrizten baitugu), eguzki plakak eta haien funtzioa ikusaraziz hezkuntza-komunitatean kontzientzia piztuz, etab.

Hurrengo ataletan gehiago sakontzen da proposamenean. Laburbilduz: **IKASTOLAK bere teilatua utziko dio GOIENER TALDEARI.** Honek %100ean promotore moduan eguzki-instalazio fotovoltaikoa diseinatu, instalatu eta finantzatuko du. Hasiera-hasierako helburua **IKASTOLAREN elektrizitate gastua murriztea da,** eta urte batzuen buruan **, argindarraren fakturan aurrezpen nabarmena izatea.**

GOIENER TALDEAK ahal duen **zerbitzurik hoberena** eman nahi die IKASTOLEI, lurraldean energia berriztagarrien sorkuntza sustatuz eta baliabideen zentzuzko erabilera bultzatuz. Aldi berean, kooperatibara pertsona gehiago erakarri nahi ditugu, gure kontzientziazio eta sustapen helburuekin bat egiteko.

2. TESTUINGURUA. ZERGATIK SORKUNTZA + AUTOKONTSUMOA IKASTOLAN

GOIENER TALDEAK autokontsumoari lotutako zerbitzuak ematen dizkio horrela eskatzen duten bazkideei. 15/2019 eta ondorengo 244/2019 Errege Dekretuak teilatuaren azalera osoa erabiltzeko aukera irekitzen du, eta teilatuaren titulartasuna eta instalakuntzarena ezberdina izatea ahalbidetzen du.

Egindako azterketa eta balorazioaren ondoren, ondorengoa esan dezakegu:

- Autokontsumoa **GOIENERren xedearekin bat datorrela**.
- Lur eremuak urriak diren lurralde honetan **teilatuetan egindako** instalazioak hobesten ditugu.
- Gure energia modu lokal eta sakabanatuan sortzeko estrategian, aukera ugari heldu daitezkeela **soberakina daukaten instalazioen** inplementaziotik.
- IKASTOLEN teilatuetan eskuratu daitekeen **eguzki baliabideari probetxu maximoa** ateratzeko aukera dugula. Ingurumenarekiko ikuspegi batetik eta egun pairatzen dugun menpekotasun energetikoa kontuan izanda, kokapen bakoitzari etekin maximoa ateratzeko bidea **sorkuntza banatua** dela.
- Sortzen den energiaren zati bat sarera bota beharrean AUTOKONTSUMITUz gero, **proiektuaren errentabilitatea hobeagoa** dela. Horrez gain, autokontsumitzaileei hornikuntzan aurrezpen ekonomikoa ekarriko diela epe motz edo ertainean.
- Proiektua bere **osotasunean GOIENER TALDETIK finantziatzeko aukera** aurreikusten dela, komunitate proiektuez ari garelako.
- **Proiektua eta eraikinaren jabe den komunitatearen apustua ikusarazteak** GOIENER TALDEARI atxikimendu berriak ekartzen dizkiola.
- Modu erreal eta eraginkor batean tokiko sorkuntzaren aldeko apustua egitean, GOIENERren **ikusgarritasun soziala eta bere iruditeria kolektiboarekiko atxikimendua hauspotzen dela**, hala nola eskaintzen dituen zerbitzuekiko norbanako zein kolektiboen lotura.


3. ABANTAILAK: EREDU HONEK IKASTOLARI EKARRIKO DIZKION ONURAK

Honakoak dira eredu honek IKASTOLAri ekarriko dizkion abantailak:

- ✓ IKASTOLAK **eguzki-instalazio fotovoltaiko bat izango du** teilatuan, GOIENER TALDEAK finantzatuta. IKASTOLAK ez du inolako inbertsiorik egin behar. Hala ere, ezinbestekoa da NAFARKOOPeko bazkide izatea, 100€tako ekarpen bakar batekin.
- ✓ IKASTOLAK NAFARKOOPeko **proiektuetan inbertitzeko aukera** izango du, urteroko mozkina jasotzeko aukerarekin (egun %2a).
- ✓ Argindarraren fakturako energiaren terminoan **aurrezpena.**
- ✓ IKASTOLAK **soberakin gabeko** autokontsumo batera bideratutako **eguzki-instalazio fotovoltaikoa** izateko aukera izango du → errentagarritasun maximoa.
- ✓ IKASTOLAK **%100an berriztagarria eta 'zero kilometro'** den energia kontsumituko du.
- ✓ **Epe luzerako kontsumo eta sorkuntza harremana** GOIENER TALDEAREKIN.
- ✓ **Proiektuaren alde eta energia berriztagarrien alde IKASTOLAK egingo duen apustua ikusaraziko da**, baita sorkuntza banatuaren eta inguruarekiko babesaren aldeko jarrera ere. Modu honetan, **IKASTOLArekiko atxikimendu berriak** sustatuko dira.
- ✓ GOIENERrekin batera, **programa pedagogiko bat garatzeko aukera zabaltzen da**, beti ere ikasleak eta euren familiak hezitzeko helburuarekin.
- ✓ Instalazioa autokontsumo kolektibora aldatzeko aukera egongo da, behin erregulazioa guztiz garatua dagoenean eta GOIENER TALDEAK aldez aurretiko azterketa egiten duenean.

4. PLANTEATURIKO IRTENBIDE TEKNIKOA

Proposaturiko eguzki-instalazio fotovoltaikoa, IKASTOLA beraren teilatuan kokatuko da.



Instalazioaren datu-teknikoak:

DIMENTSIONAMENDU MISTOA + SAREA %100		
INSTALAZIOA		
Modulu kopurua	144	modulu
Instalatutako Potentzia	54,00	kWp

Energetikoki emandako zenbatekoak:

Kontsumitutako Energia	**53.166,96**	**kWh/urtean**			
Osotara Sortutako Energia	**79.776,44**	**kWh/urtean**	**%**	**150**	**osotara kontsumitutako E**
Autokontsumitutako Energia	**33.273,44**	**kWh/urtean**	**%**	**42**	**sortutako E**
Soberakin Energetikoa	**46.503,00**	**kWh/urtean**	**%**	**58**	**sortutako E**
KONTSUMITUTAKO ENERGIAREKIKO AUTOKONTSUMITUTAKOA			**%**	**63**	

5. FAQ (MAIZ EGITEN DIREN GALDERAK)

- **Norena da instalazioa?** NAFARKOOPena. NAFARKOOPek promozioaren arrisku guztiak bere gain hartzen ditu, hala nola arazo teknikoak, produkzio galerak edota matxurak konpontzeko ardura. Ikastola berriz ezartzen diren kuoten ordainketaz arduratuko da, instalakuntzak dirauen bitartean.

- **Kuota berdina izango al da beti?** Ez. Abiapuntu gisa, elektrizitatearen gaur egungo prezioaren eta aurreikusitako autokontsumo tasaren araberako estimazio bat egin da.

- **IKASTOLAk izapide bereziren bat egin behar al du?** Berez, bat ere ez. Baliteke lizentziaren bat IKASTOLAk bere izenean aurkeztu behar izatea eta kasu horretan NAFARKOOPek prozedura erraztuko du. Bestelako baimen, lizentzia, izapide, aseguru eta abarren kudeaketa NAFARKOOPen esku gelditukо da, hauei dagozkien tasa eta kostuak barne.

- **Bi aldeen artean nolabaiteko kontraturik egingo al da?** Bai. Egokiena zera da, afera oinarrizkoenak bilduko dituen hitzarmena sinatzea:
  - Instalazioaren jabetza.
  - Teilatuaren lagapena.
  - Kuoten errebisioa.
  - Ordaintzeko modua.
  - Datuen babesa.
  - Erantzukizunak.
  - Bestelakoak.

- **Proiektuan inbertitzeko aukerarik ba al du IKASTOLAk?**

  Bai. GOIENER, S.COOPeko bazkide izanda, 100€ (behin bazkide izanda) eta proiektu hauetarako zabalduko den ekarpen leihoko totalaren %2 arteko partizipazioak eskuratu ditzake. IKASTOLAk berak hartu dezake parte, entitate juridiko bezala, edota IKASTOLEKIN[1] lotura duten familietako kide orok, pertsona fisiko moduan.

[1] https://nafarkoop.eus/faq/

6. ONDORIOAK

Aurkeztutako informazioaz, IKASTOLAK proiektuan parte-hartu dezan animatzeko, ondorengo balore eta gai orokorrak azpimarratu nahi ditugu:

- **Ingurumenarekiko aldagaiak:**
  - CO_2, NOx eta SOx gasen isurketen murrizpena. Energia berriztagarria isurtzen baita sare elektrikora.
  - Sare elektrikoaren galeren murrizketa (eta ondorioz, argi-indarra sortzeko energia primarioarena) kontsumoaren eskaria jaisten delako.

- **Aldagai Sozialak.**
  - NAFARKOOPeko bazkideen parte-hartzeari esker. Hauen ekarpenei esker finantziaturiko instalazioak baitira. Ikastolako FAMILIAK eta IKASTOLAK berak, NAFARKOOPen bitartez proiektuan parte-hartu dezakete.
  - BANATUTAKO SORKUNTZAN, deszentralizazioan eta demokrazian GOIENER TALDEAK eginiko apustua ikusarazi.
  - Sozialki, Ingurumenarekiko eta energiarekiko sentsibilitatea duten pertsonak IKASTOLARA gerturatzea.
  - Proiektu hauen inguruan sortu ahalko liratekeen lan-postuetarako kondizioak sortzea.

- **Eginkizunen aldagaia:**
  - GOIENER TALDEAk dituen betekizunei erantzuna ematen diogu horrela.

- **Aldagai ekonomikoak.**
  - Espekulazioan erori gabe, erakargarritasun xumea duten proiektuak eskaintzea. **Zuhurtziaz baino ausart** jokatzea.
  - Entitate desberdinetara estrapolatu daitekeen **eredua** sortzea.
  - IKASTOLEN artean zein gizartearekin **elkartasuna** landuko dituzten mekanismoak bultzatzea.